

Ikuskaria eta igarkizuna. *Honela mintzatu zen Zaratustraren irakurketa espektrala*

Mitxelko Uranga
Filosofian doktoregaia

Lan honen helburua Friedrich Nietzsche filosofoak idatzitako *Honela mintzatu zen Zaratustra* lan ezagunaren inguruko irakurketa bat egitea da. Aipatu lanak dituen irakurketa posible guztien artean, irakurketa honek espektrologiaren alde egiten du; beste modu batean esanda, hemen defendatuko den tesiak zera dio, *Honela mintzatu zen Zaratustraren* oinarrian mamu bat dagoela; are gehiago, Nietzsche-k berak mamu edo espekto bat zuela xede. Zaratustra, ondorioz, Nietzsche-ren eta berak horren-beste deseatzten zuen mamuaren arteko zubia litzateke. Liburua, gauzak horrela, espektroez, mamuez, hildakoez eta etorri behar dutenez mintzatzen zaigu.

GAKO-HITZAK: Nietzsche · Espektoa · Gaingizakia · Zaratustra.

Vision and enigma. Spectral reading of Thus spoke Zarathustra

The aim of this work is to learn about the famous work of Friedrich Nietzsche *Thus spoke Zarathustra*. Of all the possible readings, it chooses to do a spectrology. In other words, the thesis advocated here supports the idea that in the centre of *Thus spoke Zarathustra* is a ghost; the primary objective of Nietzsche was a ghost. Zarathustra would be, therefore, the bridge between Nietzsche and the ghost he desires. The book, therefore, tell us about ghosts, spectres, dead people and those are yet to come.

KEY WORDS: Nietzsche · Spectre · Overman · Zarathustra.

Jasotze-data: 2012-12-27. *Onartze-data:* 2013-02-11.

1. Sarrera. Bufoi eta hilotzen artean

Egia da Nietzsche-ren pentsamendua aski aztertua izan dela azkeneko bost hamarkadetan, mota guztietako analisi filosofikoen objektu izan dela; egia da Nietzsche-ren heriotza aspaldi zertifikatu zela eta, ondorioz, haren pentsamenduaren inguruan biraka ibiltzea antzua bilakatu omen dela zirkulu akademikoan dabiltzan askorentzat. Hala eta guztiz ere, uste dugu oraindik badela zer hausnartu, badagoela Nietzsche *errepikatu* edo *berraktibatzea*, badagoela bere mamua konjuratzea. Teresa Oñate-k liburu baten hitzaurrean aldarrikatu bezala, ongi determinaturiko arazo nietzschetarren bilduma batek ederki eta aktiboki konektatu eta deskonektatu ditzake elkarren artean egungo pentsatzearen artxipelagoak (Vattimo, 2002: 11); beste modu batean esanda, Nietzsche-k jarraitzen du izaten betiere zer edo zer esateko duen pentsalarietariko bat.

Ameslaria edo begitazioduna zen Nietzsche, ameslari enigmatikoa, ordea. Izaera enigmatiko edo misteriosu horretan dago, izan ere, haren pentsamenduaren bestelako lilurapen-iturria, makina bat irakurketa edo interpretazio ahalbidetu baititzake. Estilo metaforiko eta aforistiko hori da, zalantza barik, historia modernoko filosofo liluragarri —maitatua zein gorrotatua izan— eta eztabaidatuenetariko bat bilakatzen duena. Nietzsche ezin da, beraz, oso serio hartu, haren lanak irakurtzea eta ulertzen saiatzea lan hermeneutiko gogorra baita, artez beteriko artea baita —arteak hemen, beraz, zentzu bikoitza du: trikimailu eta tranpez mintzatzen zaigu lehena, estetikaz bigarrena—; horrenbestearaino, non Heidegger-ek berak onartu zuen azken egunetan Nietzsche-k *akabatu* zuela.

Hilosteko filosofoa dugu Nietzsche. Argitasun handiz ulertu zuen betiereko itzuleraren hausnartzaileak filosofoak xedetzat izan behar zuela bere garaia kritikatzeko (Deleuze, 1971: 151) eta, horrexegatik, berak etortzear zeudenentzat idaztea aukeratu zuen, jakin baitzekien bere garaikideen artean ez zegoela bere lanak erraz uler zitzakeenik, belarri txikiak zituenik. Ez zuen, horrezkero, kritika hutsean geratu nahi eta Modernitatea gaingitu ahal izateko ibilbidea marraztu zuen, gehiegi zehaztu barik, ordea, gehiegi azaltzen denak galtzen baitu interes guztia (Nietzsche, 2010: 45). Hitz gutxitan, pentsamendu nietzschetarra bukaturagabeko artelana da —ez Nietzsche-k bukatu ez zuelako, etengabe eraldatzen, plegatzen eta berrasmatzen delako baizik. Atzetik datorren edozeinek moldatzera zabalik dago—. Zelan uler daiteke Nietzsche orduan? Ba al dago ulertzerik?

«Izaki laberintiko gisa ez dugu Egia bilatzen, gure Ariadna baizik» (Nietzsche, 2010: 55); edo, beste modu batera esanda, lan honen helburua ez da Nietzsche-k benetan esan zuena argitzea edo interpretazio posible guztien berri ematea, bestelako irakurketa bat eskaintzea baizik, gure garaian lagungarri izan daitekeen eta ate berriak zabal ditzakeen interpretazioa; *popatik ematea*, zentzu deleuzetarrean. Helburua ez da horrenbeste Nietzsche-rekin justuak izatea, Colli-ren ustearen kontra uste baitugu ezin dela berarekin justua izan, den-dena idatzita utzi zuela egia bada ere, *kontrakoa* ere idatzi zuelako.

Ecce Homon behin eta berriro ulertu ote duen galdetzen dion arren irakurlari, nolabaiteko justizia aldarrikatzen duen arren —ulertua izatea baino gehiago, gaizki-ulertuak saihestea zuen xede—, hilosteko idazki askotan guztiz kontrakoa

aldarrikatzen du —edo, hobe esanda, irakurketa posibletara zabalik uzten du—: «Oso inteligentea da irakurleari gure jakituariaren bosgarren-esentziaz hitz egiten uztea» (Nietzsche, 2010: 1(45)). Ederki ere zekien berak ezagutzaren transmisioan beti dagoela nolabaiteko traizio modukoren bat (Nietzsche, 2010: 2(26)) edo, bestela esanda, nork bere burua adierazten duenean inplikatzan dela (Nietzsche, 2010: 11(336)). Modu batean edo bestean, azken obretako pentsamenduaren sistemaziorik egitea aski zaila da eta, ondorioz, hamaika interpretaziotara zabalik dago ezinbestean.

Justizia posible izateko Nietzsche bakar batek egon beharko luke derrigorrez, interpretazio bakarra ahalbidetuko zukeen mezu bakar bat; baina, kontrara, Nietzsche bat baino gehiago dago. Deleuze-ri jarraituz, liburu batek ez du subjektu eta objektu bana, ez da munduaren irudi bakar bat, munduarekin errizoma egiten duen aniztasuna baizik (Deleuze, 2008: 9-11). Gauzak horrela, Nietzsche jakin bati jarraitzeak aniztasunari jarraitzea esan nahi du, Nietzsche askori, bere irakurle eta ikertzaile askori eta, noski, geure buruari ere. Nietzsche-ri jarraitzeak zera esan nahi du, ondorioz, jarraitzea jarraitu barik —ezinezkoa da jakitea zer dago-kion nori—; jarraitzea, askotan, hirugarren bati jarraituz, *begirada zehiarra* eginez (Batzuk, 2002: 182); Nietzsche-ri jarraitzeak bere mamuak konjurtatzea esan nahi du —eta ez bere espektroa, modu berdinean itzultzen den hori—, espektrologiaren bat egitea.

Nietzsche hilik dago, baina «behin zendu denak ez du asko itxaron behar bigarrenez zendu ahal izateko» (Nietzsche, 2010: 1(8)). Haren gorpuak Röken-en hartzen du atsedean, haren mamuek inguruan jarraitzen duten bitartean —haren lanaz hitz egiten jarraitzen den bitartean, haren lanek egunerokotasuna duten bitartean—. Iraganetik datozen eta gerora zuzentzen diren mamuak dira eta, ondorioz, geroa ezin da aurreikusi. Etorkizuna mamuei dagokie, *beharbada* batek baldintzatzen duen etorkizuna noski, ezinezkoa baita jakitea zer-nolako mamuek gauzatuko duten etorkizuna, zer-nolako gorputzak har ditzaketen. Modu batean zein bestean etorri, etorkizuna mamuena da eta, horrenbestez, Derrida-ri jarraituz, ezin da etorkizunik izan mamurik gabe (1998: 30-31).

Lan honek xedetzat du Nietzsche-ren mamuak konjurtatzea, «sakrifizio zaharrak espiritu berri bati eskaintzea, arima zaharra gorputz berri baten bidez eraldatzea» (Nietzsche, 2010: 4(17)). Orain, Nietzsche-ren gorputz ustel zaharra duen espektroa ekarri nahi ez badugu, zein da konjurtatu nahi dugun mamua? Zein da jarraituko dugun Nietzsche-a?

1.1. Fantasiak eta mamuak

Nietzsche eta haren lana ez dira gauza bera, haren bizitza eta pentsamenduen arteko distantziak erakutsi bezala. Eta, hala eta guztiz ere, ez ditugu aurkarizat hartu behar, kontrara baizik. Horrenbestetan gurutzatzen dira bide biak non askotan zaila egiten den bereiztea zer dagokion zeini. Biek elkar elikatzen dute, haren lanak gaixotasunerako botika diren neurrian, Nietzsche-ren baitan liskar gogor bat gertatzen delako badenaren eta izatera ailegatu nahi denaren artean. Nietzsche ez zen ailegatu nahi zuena izatera, baina bere obretan bidea markatzea lortu zuen.

Nietzsche-rentzat gizabanakoa ez zen izandakoaren eta egindakoaren batura hutsa, nahi zuenak ere baldintzatzen baitzuen, *definitu*. Nortasuna, ondorioz, ez da zer edo zer aldaezina, kontrakoa baizik, badenaren eta izan nahi duenaren arteko barne-borroka baizik. Orain, bere barne-borroka propio horren inguruko iritzi argia zuen Nietzsche-k: «Bilakatu naitekeena baino espiritu libreagoa izan nahi ote dut» (Mann, 2002: 96). Kostata izan bazen ere, bere buruari onartu behar izan zion, azkenik, guztiz nihilista izaten jarraitzen zuela (Klossowski, 2004: 166) —bere lana ez, ordea—.

Ez zegoen dena galduta, berriz, baldin eta bere lanarekin jarrai zezakeen ikasle edo dizipulurik aurkituko balu. Nietzsche bizitza galtzearen beldur zen, berarekin bere pentsamenduak desagertuko lirateke-eta; baten batek jarraitu behar zuen haren lana. 1882an ezagutu zuen Lou Andreas Salome izeneko gaztea bilakatu zen bere azken aukera (Deleuze, 1971: 17), baina trena hori ere galdu zuen. Zer geratzen zitzaion? Bakardadea; bakardadea eta pairamena.

Azkenik bere fantasiarekin baino ez zen geratu, aldi berean itxaropena piztu eta ezinegona areagotzen zion fantasiarekin: «Orain bakarrik nago: gizakiak bilatu nituen —eta nire burua baino ez nuen aurkitu. Baina nire burua ez dut deseatzten dagoeneko» (Nietzsche, 2010: 3(314)). Bakardadean aurkitu zuen konpainia; bata zatitu eta erdibitu zen —«bat bider bat beti dira bi» (Nietzsche, 2010: 3(1)108)—. Bere ama balitz bezala, bere burua erditu zuen izaki berritu bezala (Klossowski, 2004: 230); halaxe jaio zen Zaratustra, aita-patuaren eta ama-barrearen semea; eta, Zaratustra-rekin batera, Nietzsche berri bat.

Orain bai, Nietzsche ez dago jada bakarrik. Nietzsche Nietzsche bihurtu da, Nietzsche da. Eta, hala eta guztiz ere, sintagma horretan ez dago tautologiarik, Nietzsche biak ez baitira berdinak, bien arteko hutsuneak bereizten baititu izenak. Berdin da, beraz, *Nietzsche Nietzsche da* edo *Nietzsche ez da Nietzsche* esatea, izenok ez baitiote gauza berari egiten erreferentzia. Gauzak horrela, *Nietzsche Nietzsche eta bere mamua da*, badena eta izatera heldu nahi dena: «Ni eta ni neu beti dira bi pertsona ezberdin» (Nietzsche, 2010: 3(1)352).

Bere mamua Zaratustra da, ergel eta hilotzaren artekoa, *bufoia*. Bakardadean baino agertzen ez den aurpegidun *bestea*, mamuak beti agertzen baitira bakardadean, zer edo zeren absentsia sumatzen denean, *besteaz* galdetzean. Nietzsche-k galdurik ikusten duenean bere burua, zerekin identifikatzerik ez duenean eta bakarrik sentitzen denean, orduan, *bestea* bilatzen du —urrun izanik ere—, fantasia edo mamuren bat agerrarazten du: erdi(bi)tzen da. *Bestearen* absentsiak bultzatzen du Zaratustra erditzera.

Zaratustra mamu bat da, Nietzsche-ren eta etorkizuneko lagunaren arteko zubia, badenaren eta izatera ailegatu nahi denaren artekoa. Baina, mamua izanik ere, ez da errealitatearen aurkakoa, oso erreal baizik. Fantasiak irrealak diren arren, mamuak oso errealak dira, errealitatearen oinarria, izan ere. Lacan-i jarraituz, ez dago mamurik gabeko errealiterik, errealitatearen zirkulua mamu batek baino ezin baitu itxi —errealitateko hutsunea mamu batek baino ezin du bete—.

Zaratustra-mamuari esker, Nietzsche-k sortu eta birsortu dezake bere errealitatea, mamua Nietzsche-ren eta sortu nahi duen errealitatearen arteko zubia

baita, hutsunea bete behar duena. Zaratustra-ri esker, Nietzsche iragana, oraina eta geroa da, mamua ez baita bakarrik Nietzsche-ren eta errealtatearen arteko zubia, denbora-haria ere badelako. Zaratustra-k, zentzu horretan, *hirutasun* nietzschetarra adierazten du: aita (iragana), Nietzsche-semea (oraina) eta espiritu-mamua (geroa).

Azkenik, Zaratustra baldin bada geroarekin lotzen duen mamu-zubia, zein da Nietzsche-ren benetako nahia, fantasia edo ametsa? Horrenbeste deseatzten duen espektroaren agerkunde eta haragitzea baino ezin da izan: gaingizakia. Ondorioz, gaingizakia baldin bada Nietzsche-ren fantasia —bizi duen errealtatearen aurkakoa—, Zaratustra litzateke Nietzsche-ren eta gaingizakiaren arteko zubia edo mamua —eraiki nahi den errealtatearen oinarri, erreala bera ere—. Zaratustra litzateke, beste modu batean esanda, gaingizaki-fantasiaren eta bigarren hirutasun nietzschetarraren profeta: botere-nahia (iragana), betiereko itzulera (oraina) eta gaingizakia (geroa); eta, noski, *Honela mintzatu zen Zaratustra* lana bere liburu sakratua.

1.2. Fantasia baliokideak

Honela mintzatu zen Zaratustra haren lanetan esanguratsuen —eta, behar-bada, garrantzitsuen— iruditzen zaigu, beste gauza askoren artean, egitearen pentsamendu heldua sintetizatzen duelako. Lan *fantasmatico* —errealtatearen gordintasuna gainditzeko, izuarekin bizi ahal izateko eta hutsunea betetzeko behar izan zuelako. Marko fantasmatico eskaintzen zion, marko hori desagertzen bada errealtatea amesgaizto bilakatzen delako (Zizek, 2010: 31)— horretan garatzen ditu mailuaren filosofoak lau ideia nagusiak: Jainkoaren heriotza, botere-nahia, betiereko itzulera eta gaingizakia.

Aipatu lana dei galdu espektral bat da etorkizunera, etorkizuna mamuena baita, mamurik gabe ez baitago inolako aldaketarik, errealtatea aldatzerik nahi ez balitz, mamurik sortuko ez litzatekeelako. Aristoteles-ek aldarrikatu bezala, ez dago mamurik gabeko hausnartzerik; edo, bestela esanda, mamurik gabe ez dago hausnartzerik, eta hausnartzerik gabe ez dago errealtatea eraldatzerik. Horrexegatik behar zituen Nietzsche-k bere fantasiak, mamuak eta bere lan fantasmaticoak.

Orain, mamuek eta fantasiak arazo larriak sortu zituzten, horiei guztiei Nietzsche-k garaian aski ezagunak ziren izenak jarri baitzizkien. Garaian pil-pilean zeuden izenez baliatu zen bere mamu eta fantasiak batailatzeke; alde batetik, horiengana hurbiltzea errazten zuelako eta, bestetik, hizkuntza-jokoaren bidez urrunketa bilatzen zuelako. Xedea bikoitza zen: metafisikoen jokoa atakatzeko (Cragnolini, 2003: 125) eta bizitzaren zein hizkuntzaren erlatibismoa —hobe, perspektibismoa— aldarrikatzeko.

Gauzak horrela, hitzokin adierazi nahi zuena jakin nahi duenak ezagutu beharko litzuzke derrigorrez Nietzsche-k erabili zituen hizkuntza-jokoak, izenek adierazten dutenak bakarrik hartzen baitu zentzua joko eta erregela jakin batzuen baitan, erabileran (Wittgenstein, 2008: 55,61). Fantasia eta mamu hauek guztiek zer adierazten omen duten aski ikertua izan da eta makina bat ikuspegi dago. Guk bestelako ikuspegi bat agertuko dugu, hipotesi bat, noski.

Gure aburuz, fantasia eta mamu nietzschetarrak izendatzen dituzten izenak ez dira edozelako izenak, *baliokideak* baizik. Botere-nahia, betiereko itzulera eta gaingizakia, zentzu horretan, *fantasia-baliokideak* dira —baliokideak elkarren artean trukatu daitezkeelako eta metafisikaz haratago dagoen teoria interpreta-tiboa delako, zeinak hiru oinarri dituen (Cragolini, 2003: 124)—; hirurek osatzen duten hirutasuna, bestetik, simulakro edo *fantasia nagusia* litzateke.

Izen bakoitzak zer edo zer baliokide eta alternatibori egiten dio erreferentzia, zuzen-zuzenean adierazi ezin daitekeen zer edo zeri. Teoria interpretatiboa izaten jarraitu nahi duen neurrian, plurala eta irekia, izenek ezin dute ezer finkorik adierazi, ezin dute gorpuztu, gorpuzturik amaituko balute baliokide izateari utziko baliokete. Izen bakoitza definitzeko orduan, beraz, bestelako baliokideren batekin baino ezin da egin, eta bigarrena hirugarren batez, etab. Logikoa denez, horrek zerrenda luze batean eraman gaitzake infinituraino.

Nietzsche-k bazekien nahi beste izen erabil zezakeela —Osasun Handia, Politika Handia, eguerdia, etab.— mamuari erreferentzia egiteko, baina inolako zentzu finkorik eskaini gabe, horrek aurpegia eta gorputza emango bailizkioke mamuari behin betiko definituz eta metafisikaren kiribilean sarraraziko bailuke berriz ere. Helburua argia da: hutsunea bete, bete barik; mamua gorpuztu, gorpuztu barik; zentzua eman, zentzua eman barik.

Zelan bete hutsunea? Zelan eman zentzua bere proiektuari? Zer-nolako edukiarekin metafisikaren zirkuluan galdu barik? Mamuaren konjurarekin, modu jakin batean gorpuztu behar ez duen mamuarekin, gorputz anitz har ditzakeen mamuarekin. Gorputzik ez duen mamua behar da, gorputzak definitzen baitu, baliokidetasun-zerrendan kate-begiak apurtzen dituelako.

Azkenik, hipotesi honen ildoari jarraituz zera aldarrikatu nahi dugu, proiektu nietzschetarrak jarraitzen duela egunerokotasuna izaten, oraindik ere asko eskaini dezakeela; beste modu batean esanda, Nietzsche ezberdinetan aurkitu daitezkeela, beharbada, egungo arazoei aurre egiteko moduak, mamuaren agerkundeak badenarekin apurketa bat dakarrelako; mamuaren konjurak transgresioa dakar ezinbestean, mamuak errealtatea eraldatzea ahalbidetzen duelako. Mamuak ekarri beharko du berekin egungo aniztasun eta heterogeneo-tasuna bermatzen duen ordena berria, mamuaren bitartez —fantasia-baliokideen bidez, artikulazio-baliokideen bidez (Laclau, 2007: 285)— baino ezin baita aniztasuna plural-singular eta singular-plurala bilakatu.

1.3. *Beharbadaren pentsamendu arriskutsua*

Honela mintzatu zen Zaratustra guztiontzat zein inorentzat ez idatzitako liburua da; hau da, Nietzsche-k ulertua eta ez-ulertua izan nahi zuen aldi berean; edo, beste modu batean esanda, gutxi batzuentzat baino ez zuen idazten, lagunentzat, komunitaterik gabeko komunitate-kideentzat. Hemen ez dago, hala eta guztiz ere, inolako izaera aristokratikorik, mamuari eta etortzear dauden horiei mintzatzeko beharra baizik. Ez du lagunik, ezta merezi duen etsairik ere, eta horrexegatik jartzen ditu bere itxaropen guztiak etorri behar duten horiengan. *Beharbada orduan heltzen zaigu ordu zoriotsua...*

Horixe bera da *beharbadaren* pentsamendu arriskutsu nietzschetarra, ezinezkoaren garaipena, etortzeaz dagoen ezinezkoari ateak irekitzea (Batzuk, 2002: 190). Ez da, ordea, ezeptizismo hutsa; galdera-ikur hutsa izateari uzten dio aukeraz bete ahal izateko. *Beharbada* hori, mamua bezala, badenaren eta izango denaren arteko zubi lainotsua da. Beharbada aukera-aniztasuna baino ez da, etengabeko prozesuan dagoen aukera abanikoa. Etortzeaz dagoenari ateak irekitzea da, ezintasunari eta ezinezkotasunari gailentzea.

Nietzsche-k, bakardadeari aurre egin ahal izateko, bakardadearen komunitatea osatu nahi du etortzeaz daudenekin, bere parekoak izan daitezkeenekin. Horrezkero, komunitatea ez da edozelakoa, bakardadea lagun dutenen anaitasunik gabeko anaitasunarena baizik (Derrida, 1998b: 61); etortzeaz dauden kide horiek ez dute Nietzsche-ren antzik izan behar, ez dute jarraitzaileak izan behar: filosofo mota berria izan behar dute, *tentatzaileak* (Nietzsche, 1995: 71). Zelan konpartitu beraiekin konpartitu ezin daitekeena, bakardadea? Mamuaren bidez, fantasia-zubien bidez.

Etorkizuneko filosofoek tentatzaileak izan behar dute, beraz, baieztatzaileak, berritzaileak eta apurtzaileak —inondik ez jarraitzaileak—; zer edo zer hobea ahalbidetzeko saiakera eta esperimentu. Sortzaileak izan beharko dute —inondik ez eraldatzaile edo egokitzzaileak—, jakinik ere sortzaile izateko suntsitzaileak izan beharko dutela ezinbestean. Zentzu horretan, *gaizkia* indar positibo eta onuragarri bilakatzen da nahitaez.

Nietzsche-k argitasun handiz igarri zuen etorkizuneko filosofoek zer-nolako garaia bizi beharko zuten: kaos atomistikoa, kaos morala, *denok denon aurka* leloa gailentzen den garaia. Jainkoaren heriotzak ekarritako noraeza eta ezinegona baretzeko gehienek komunitate moderno zein estetiko postmodernoetan biltzea bilatzen duten ez bezala, filosofo berriek etika eta estetika nahastatzen dituzten komunitateetan bildu beharko lukete: «Komunitatea (ez artaldea)» (Nietzsche, 2010: 99); bestela esanda, herriaren edo komunitatearen kontserbazioa, ez espeziarena.

Etorkizuneko filosofoen komunitateak, batetik, aniztasuna izan behar du oinarri —sentimendu etikoak singular-plurala eta plural-singularra izan behar du aniztasuna bermaturik egon dadin (Nietzsche, 2010: 511), sentimendu etiko (*fede*) fantasmatico eta baliokidea— zentzu bakarra saihesteko eta, bestetik, sentimendu etikoa lotura estetiko hutsak sahiesteko. Filosofoek zein komunitateek xede bakarra izan beharko lukete: pertsona artista (sortzaile), santu (maitale) eta filosofo (jakintza-gizakia) bilakatzea (Nietzsche, 2010: 347).

2. Jainkoaren heriotza. Apopiloa ate-joka

Eroa eliza mordoan sartu omen zen bere *Requiem aeternam Deo* oihukatuz. Haiengatik kanporatua izan eta gero galdetu ziotenean zergatik egiten ote zuen, beti errepikatzen omen zuen gauza bera: «Zertarako balio dute eliza hauek, Jainkoaren monumentu eta hilobiak izanik?» (Nietzsche, 1998: 110). Zer esan nahi zuen horrekin guztiarekin? Zer adierazten zuen Jainkoaren heriotzak?

Ezeren gainera, Jainkoaren heriotzak mundu supra-sentikorrek bere indar guztiak galdu dituela esan nahi du, oinarritzat dituen balio gorenak suntsituak izan direla inguruan zuen metafisikak bere garrantzi guztia galdu duelarik. Ondorioz, heriotzak desertuaren etorreraren berri ere ematen digu nahitaez. Zabaltzen den neurrian ezerezak balio zahar guztiak irensten ditu. Nihilismoa dago ate-joka.

Heriotzak badu, berriz, alde baikorra ere, balioen eraldaketa ahalbidetzen duelako. Heriotzak etena ekarri behar du, garai berri baterako aukera. Orain, aukera berriak ager daitezten, benetako heriotza gertatu behar da Jainkoaren mamu ezberdinek ez gaitzaten beldurtu hurrengo mendeetan. Baikorra den arren, mesfidati agertzen zaigu Nietzsche heriotza horrekiko (Deleuze, 1971: 220).

Jainkoa zendu den arren, haren lekua hutsik geratu den arren, hutsik dago oraindik ere, zer edo zerk noiz okupatuko zain; bestela esanda, seme-alabok Jainko-aita hil zuten arren, Jainko beraren mamuak gurean jarraitzen du noiz gorpuztu zain. Jainkoa hil den arren, bere mamuaren bitartez modu oso ezberdinetan bueltatu daiteke, balio ezberdinak gorpuztuz. Jainkoa hil den arren, haren itzalek gurekin jarraituko dute gutxienez bi mende gehiagotan.

Nietzsche-k heriotzaren berri ematen digunean, heriotza erreal batez mintzatzeko zaigu, baina ez heriotza osoaz, ordea. Seme-alabok, desertuan bakardadean geratzearekin batera, ekin zioten mamuaren konjurari, mamuarekin jolasteari. Parrizidioaz geroztik umezurtz geratutako gizakiak beharrezkoa du aitak utzitako hutsunea betetzea. Gauzak horrela, gizaki modernoaren jokoak aitaren absentiarekin loturik daude, mamuak absentiaren batekin agertzen direlako.

Aita hil arren, seme-alabei uzten die jolasteko mamu bat: berea, espektroa —edo, hobe esanda, artxiespektroa—. Gizaki modernoak aitaren absentiarik pairatu izan ez balu, orduan ez legoke inolako mamurik, mamua betiere agertzen baita absentiarekin jolastean. Gauzak horrela, Jainkoa zendu den arren, bizirik dirau bere mamuan —ondorioz, heriotza ez den heriotza batez ari gara, heriotzaz eta mamuaz, non mamua gizakiaren eta haren fantasiaren arteko zubia litzatekeen. *Heriotza heriotza da* sintagman ere ez dago tautologiarik—.

Espektro edo artxiespektroaren benetako heriotzarik gertatzen ez den neurrian, ez da Jainkoaren benetako heriotzarik gertatuko. Soilik espektroa —zubia— hiltzen denean desagertuko da heriotza bien arteko hutsunea, soilik orduan mintzatuko ginateke benetako heriotza osoaz. Modernitateak ezagutu ditu, horrez-ker, mamuaren forma ezberdinekin jolastu nahi izan duten *sortzaileak*, espektroa zen bezala berraragitu nahi zuten *oroimindunak* edo espektroari gorpuztuz ezberdinak eman nahi izan zizkieten eraldatzaile edo *imitatzaileak*.

Edozer da ezereza baino hobe; hobe da ezereza deseitzea, ezer ez deseitzea baino. Asto bat bera ere izan daiteke oso aproposa hutsunea betetzeko, hutsunea betetzen den bitartean —*Gizaki nagusi* nietzschetarrek ederki ere dakite hori—. Gizaki nagusi modernoak izan ziren, beraz, Jainkoaren espektroa modu ezberdinetan gorpuzten saiatutakoak: gizaki nagusiek moldatu zuten Jainkoaren irudia beren irudira, gizaki modernoaren irudira; gizaki nagusiak dira balio dibinoek utzitako hutsunea balio gizatiarrekin betetzen dutenak, gizakia jainkotzen dutenak. Ezer ez da aldatu, ordea.

3. Botere-nahia

Jainkoaren heriotza edo *nihilismo* esamoldeekin gertatu bezala, Nietzsche-k bestelako zentzu bat eman zion bere garaian aski ezaguna zen termino bati: *botere-nahia*. Nietzsche-ren etxeko apaletan eboluzionismoari eta Lamarck-i buruzko zenbait liburu bazeuden ere, ez dugu uste haren pentsamenduaren interpretazio darwinista egin daitekeenik —are gutxiago darwinismo sozialarekin lotzerik—. Hizkuntza-joko nietzschetarrak berriz ere.

Nahi, Ni, subjektu edo *arima* bezalako termino modernoak intentzio baten inguruan sorturiko fikzioak baino ez dira, errealitatearekin zerikusi handirik ez duten fantasiak; hitz-jokoak dira, hizkuntza-jokoak, zinuak. Horietaz guztietaz mintzatzea ez zaigu batere lagungarri, neurri batean edo bestean, aniztasuna ezkutatzeko fikzioak baino ez direlako.

Ez dago subjektu edo Ni-rik, nahi-aniztasuna ezkutatzeko unitate imajinario asmatuak dira. Ni-a gure pentsamenduak baino ez du jarri, itxurazko orokortasuna da. Ikuspegi honek aurrez aurre jartzen ditu, ondorioz, Nietzsche eta Descartes, pentsamenduen jatorria ez baitago subjektuan —pentsamenduak ez ditu Ni batek sortzen, are gutxiago Ni horrek kontzienteki nahi duenean. Pentsamenduak nahi dutenean eta nahiera gailentzen dira subjektua gaineztuz—. Pentsatze arrazionalista bera abstrakzio bat gehiago da, kategoria linguistikoa (Butler, 2001: 21).

Nietzsche-k, horrezkero, termino horiek guztiak birpentsatu nahi ditu *subjekturik gabeko indibidualismo* motaren bat abiapuntu izanik (Avila, 1999: 204); termino horien zentzua eraldatzea du xede, gizakia esentzialismo mota orengandik askatzea etengabe eraldatuz dagoen esperientzia batera eraman ahal izateko, kategoria arau-emaeleetatik haratagoko izateko era-aniztasunera.

Gizakia kaosa da, aniztasuna (Nietzsche, 2010: 227); gizakia elkarren artean borrokatzen diren indarren bilduma da, pentsamenduaren indarrak (Deleuze, 1971: 15); gizakiak imajina ditzakeen pertsonak baino askoz gehiago ditu, pertsonaren izenpean ezkutatu nahi diren arren (Nietzsche, 2010: 516). Gorputza, horrenbestez, eratu eta deformatzen, plegatzen eta desplegatzen den elementu plastikoa dugu; guda-zelaia.

Gauzak horrela, Ni edo subjektu batez ari garenean, energia eta indarren kontzentrazio jakin batez mintzatzeko gara, gorputzaren kohesioaz (Klossowski, 2004: 53). Kohesioa eta zentzua, kaosa den arren, zentzu bakarra duen aniztasuna delako gizakia —zentzu horri deitu ohi diogu Ni—. Beharbada zuzenagoa litzateke, beraz, Gu esatea Ni esatea baino, nahi nietzschetarra singular-plurala eta plural-singularra baita. Horrek ez du esan nahi nortasuna zatitua izan denik edo jatorria kaosa denik, unitatea jatorrian askotarikoa dela baizik (Nancy, 2006: 55).

Arestian esan bezala, gorputza fenomeno askotarikoa da, indar ezberdinen arteko guda-zelaia, *menderakuntza-unitatea*; baina, indar guztiek ez dute izaera bera eta, ondorioz, ez dago botere-nahi mota bakarraz hitz egiterik. Badira, asko sinplifikatuz, *aktiboak* eta *erreaktiboak* diren indarrak —eta botere-nahiak—, bai batzuk eta bai besteak saiatzen diren arren modu berean beren boterea handitzen (Nietzsche, 2010c: 288).

Azkenik, horrenbestez, *botere-nahi* nietschetarra, pentsalariaren —edo, gure— hizkuntza-jokoen eta erregela jakinen arabera, bestelako fantasia baliokidea litzateke, mezu beraren bestelako adierazpen mota bat: norberaren gainditzearen aldarria —betiere bitarteko gisa, etorri behar duen gaingizakiarenganako zubi gisa—. Zentzu horretan, botere-nahia hirutasuna osatzen duten beste fantasien baliokidea litzateke, zehatzegi definitu behar ez den terminoa.

Botere-nahi honek ez dauka zerikusirik Sschopenhauer-ekin, gizaki batek bizitza baino askoz gehiago estimatu baititzake gauza asko; ez da botere-nahi hedonista edo eudemonista ere, ez baitauka azken xedetzat zorientasuna edo ahalik eta plazer gehien biltzea; ez da bizirautea bultzatzen gaituen eboluzioaren produktu hutsa ere, gizakiak bere patuaren jabe izan behar baitu; ez da nahi hobbesiarra edo hegeliarra ere, ez baita boterea metatzeko bitarteko hutsa; ez da ohorea, ospea edo bestelako arrakasta sozialak lortzeko nahia; botere-nahia, zer edo zer izatekotan, gainditze-nahia litzateke.

Botere-nahi fantasia, beraz, erraz ordezkatu dezakegu bestelako fantasia-baliokide nagusi batekin: betiereko itzulera.

4. Betiereko itzulera. Eguerdia eta eternitatea

Arestian aipatu terminoekin gertatu bezala, fantasia-baliokidea den *betiereko itzulera* ere hizkuntza-joko nietschetarren mendekoa da, bere garaian aski eza-guna zen adieraz haratago, Nietzsche-k bere pentsamenduetan arriskutsu, abismal eta urrunena adierazteko baliatu zuen. Greziarren kultura oso ondo ezagutzen bazuen ere, ez dugu uste betiereko itzulerak *urobosari* edo historiaren ikuspegi zikliko eta betierekoari erreferentzia egiten zionik —ezta garaiko zientzialari eta matematikariek mitoari emandako oinarri zientifikoari ere—.

Makina bat interpretazio egonik ere, nabardurak nabardura, adierazpen gehienak bi talde nagusitan banandu daitezke nagusiki; alde batetik, inperatibo etiko-praktikoa, bizitzaren baieztapen tragikoa eta ihesaldi mota ororekiko mespretxua, eta, bestetik, bilakaeraren legea edo hipotesi enpirikoa. Egia esan, Nietzsche-ren lanetan hamaika esaldi aurkitu daiteke zentzu batean zein bestean. Espektrala da oso.

Bigarren ikuspegiari dagokionez, zenbait galdera datozkigu burura: zergatik bilatuko zion azalpen eta oinarri zientifikoa bere teoretariko bakar bati, fantasia bakar bati? Nola ager daiteke gaingizakia edo bestelako zer edo zer ezberdina itzulian berdina dena itzultzen bada? Nola batu daitezke aldaketaren beharra eta ezinezkoaren bilaketa historiaren edo materiaren betiereko errepika-penarekin?

Lehendabiziko ikuspegiari dagokionez, ordea, bestelako galdera batzuk ere etortzen zaizkigu: metafora edo aldarri erromantiko hutsa al da? Irudi hutsa al da Nietzsche-ren pentsamendu guztia? Zaila da benetan jakitea Nietzsche-k esan nahi zuena eta, baliteke, zentzu horretan, horren zaila izatea betiereko itzuleraren nondik norakoa ulertzea non Nietzsche-k berak ere ez zuen guztiz ulertuko (Vattimo, 2002: 33).

Gure aburuz, eta arestian markaturiko ildoari jarraituz, Nietzsche-k ederki ere zekien zer adierazi nahi zuen, modu gardenean adierazi nahi ez zuen arren; hau da, betiereko itzuleraren anbiguotasuna ez da ezintasunaren edo izaera erromantikoren baten ondorioa, nahita egindakoa zer edo zer baizik. Fantasia da eta, fantasia den neurrian, zentzurik gabeko zentzua, anbigua edo antzua izan behar du milaka interpretazio ahalbidetzeko. Fantasia ulertzea dagoen arren, ezin da ulertu beste bi fantasia-baliokideak ulertzen ez diren neurrian.

Zein da haren zentzua puzzlearen piezak jarri ondoren? *Amor fati* —bestelako baliokide bat—, ezer ez berdina nahi ez izatea (Nietzsche, 1993: 54); hau da, bizitzaren goratzea, baieztapen tragikoa zeinen bidez bizitza den bezala onartzen den, minetik ihes egin eta edozelako paradisuatan ezkutatu gabe. Horrek ez du esan nahi utzikeria edota nihilismoa aldarrikatzen denik, ideia sakonena onartzean eta barre egitean bizitza guztiz eraldatzen delako. Baieztatzen duenak ezin du pertsona bera izan barre egin eta gero, eraldatu da.

Amor fati litzateke, beraz, hirutasuna batzen duen haria, patua —gaingizakia— maitatzea eta deseatzeta —botere-nahia—. Betiereko itzulera maitasuna da, fantasiaren desioa; baita suntsipena eta gorrotoa ere, mamuaren gorpuzteak aurrekoaren suntsiketa baitakar, eraldaketa: *Hauxe zen bizitza? Ongi da, hasi dadila berriz!* (Nietzsche, 1997). Zer esan nahi du honek guztiak? Nietzsche ikuskari eta igerkizun banaz baliatzen da hau dena *azaltzeko* —azaldu barik—.

Marinelei kontatzen dien igarkizunean Zaratustra-k gora egin nahi du arintasun guztiarekin gainean duen ipotxak behera tiratzen dion bitartean. Orduantxe oartzten da Zaratustra bera eta ipotxaren artean hautatu beharra duela. Behin ipotxa bere gainetik jaisten denean ikusten du ate handi bat bere ondoan. Ateetik bide bi abiatzen dira kontrako noranzkoan eternitateraino. Ateak unea adierazten du, bide batek iragana, eta, besteak, etorkizuna: «Gauza orok ditu bi aurpegi. Izandakoarena bata eta izango denarena bestea» (Nietzsche, 2010: 110).

Atearen aurrean, ipotxak egia guztiak kurboak eta denbora zirkulua dela esaten dionean, Zaratustra-k isiltzeko agintzen dio, gauzak arin ez hartzeko eta modu sinplean ez erantzuteko —egiak sinpleak direla gezur biribila da (Nietzsche, 1999: 39)—. Eta, hala eta guztiz ere, ipotxarekin bat ez datorren arren, Zaratustra-k uste du (atearen) irudi-bideak ezin direla zuzenak izan, metafora horren bidez denbora lineala eta progreso modernoaren ideiak kritikatu ahal izateko eta, bestetik, betiereko itzuleraren ideiarri izaera espektrala eman ahal izateko —Historiak ez garamatza leku bakar batera ezinbestean, makina bat aukera dago (Cragolini, 2003: 137)—.

Hautakor eta perspektibista gisa, betiereko itzulera gizakiaren malgutasuna aldarrikatzen du, aldatzeko aukera erreala. Ideia honek, beraz, ezberdina denaren itzulera ere onartu behar du —eraldaketa deseatzeta eraldaketa exigitzea eskatzen du, gertatutakoarena ere (Nietzsche, 1999: 69)—. Ez dago biderik, aurrera egitea baino ez dago, aukerak, ezberdina eta ezinezkoa denaren etorrera. Indarra erreproduzitu bedi nahi bezala errepikapenaz libratu ahal izateko, mugimendua kontrolatu ahal izateko (Nietzsche, 2008: 822).

Bat-batean Zaratustra-k txakur baten oihua entzuten du; garrasi lazgarriak errealtatera itzularazten duenean konturazten da ate handia eta ipotxa desagertuak direla. Zaratustra bakardadean aurkitzen da berriz, jakin barik amestu omen duen horrek zer esan nahi dion. Txakurraren oihuak bidaltzen du Zaratustra ikuskari batetik beste batera, zeinetan ikusten duen hiltzorian dagoen artzain gazte bat suge bat ahoan duelarik.

Egoera lazgarriaren aurrean, Zaratustra saiatzen da sutuki sugea ateratzen ahotik baina saiakera oro da antzua. Artzain gaztea indarge eta ezer egin ezinik dago, baina Zaratustra-k ez du aurkitzen modurik laguntzeko, bortizkeria guztiarekin saiatauta ere.

Loa nihilismo eta dekadentzia ororen bizileku da, ametsetan baino ezin baita heldu nihilismoa sakoneneraino. Horixe bera da suge pozoitsuak —ez-pozoitsuak inteligentzia adierazten du, betiereko itzuleraren ideiarekin alde baikor eta positiboa—, ideiarekin aurpegi iluna, ezkorra, nihilismoaren betiereko errepikapena —*dena antzua da*—. Artzainak ahoan duen suge pozoitsuak atzeman eta itotzen duen nihilismoa adierazten du, beraz.

Azkenik, Zaratustra-k burua hagingintzeko agintzen dio artzainari. Halaxe egiten du artzainak, bat-batean. Une horretan bertan jabetzen da artzaina pentsamendu arriskutsuenaz, betiereko itzuleraren ideiaz. Nihilismoari barnetik baino ezin zaio aurre egin, norberak lortu behar du. Une horretatik aurrera, ez dago karramarroak bezala atzera egiterik eta, eraldaturik, etorkizuneko bideari ekitea baino ez da geratzen. Ondorioz, nihilismoaren gainditzea betiereko itzuleraren baieztapena eta norberaren gainditzearekin baino ezin da lortu. Eta, horretan guztian *uneak* ohorezko lekua okupatzen du.

Koskak baietza adierazten du, betiereko itzuleraren ideia onartzen den unea; unea adierazten du, gizabanakoaren hautaketa eta erabakia, norbera izatea erabakitzen duen unea; koskak pozoitik libratzen du artzaina, koskari esker ateratzen da amesgaiztotik, mendekotasunetik. Zer adierazten du, beraz, ideia honek? «bizitza berriaren zantzuak» (Nietzsche, 2008: 803), bizitza zaharraren suntsiketa. Orain, nola bizi daiteke holako egiarekin?

Transbaliakuntza zaio ezinbestekoa holako egia jasan nahi duenari, pentsamendua geroz eta arriskutsuagoa bilakatzen baita transbaliakuntza gertatzen ez den bitartean. Den-dena da subjektiboa eta, ez hori bakarrik, den-dena gure obra da —gure obrez harro egon beharko genuke— (Nietzsche, 2010: 586). Transbaliakuntza, bestela esanda, mamua da, fantasia erreala bihurtzeko beharrezkoa dugun zubia. Zein da, orduan, Nietzsche-ren fantasia? Gaingizakia. Nietzsche-k bizitzari gaingizakiaren ikuskariarekin baino ezin dio egin aurre (Nietzsche, 2010: 109).

5. Gaingizakia. Mamua

Gaingizakia ager dadin gizakiak zendu beharra du ezinbestean, Jainkoaren benetako heriotza gertatu beharra dago. Gaingizakiak itxaron behar zuen agertzeko Jainkoaren mamua desagertu bitartean; baina ez hori bakarrik, gizakiak —gizaki

jainkotua edo jainko gizatiartua— ere zendu behar du nahitaez: gizaki(moderno)a landarearen eta mamuaren arteko zubia baino ez da (Nietzsche, 2010: 115).

Zer esan nahi du gizakiak zendu beharra duela? Artxiespektroak desagertu behar duela, mamu handiak, Gizakiak (maiuskulaz), non Gizakia orokortasun abstraktua den —ondorioz, gizakiak mamu-orokortasun horren mendekoak dira eta horren irudira baino ez dira; edo bestela esanda, elkarren aurrean mamu gisa agertzen dira, modu fantasmaticoan. Gizakia artxiespektroa den bezala, gizakiak espektro bildumak dira—.

Gizakia Jainkoaren mamua da haragi eginda. Jainkoa hil zuen gizakiak Jainkoarekin batera zendu behar bazuen ere, heriotza saihestea lortu zuen azkenik, ez baitzen benetako heriotza osoa. Paradoxikoa dirudien arren, Jainkoaren heriotzak ahalbidetu zuen Gizakiaren agerkundea —Aitaz ari gara, azken batean, artxiespektroaz beraz—.

Jainko-forma den neurrian ezin da egon gizaki-forma baina, jainko-forma desagertzen den une berean agertzen da gizaki-forma. Orain, jainko-formaren heriotzarekin forma jainkotu guztiek zendu behar dutenez gero, gizaki-formak ere hil behar zuen; hau da, Jainkoarekin batera hiltzen da Gizakia baina Gizakiak ere bere mamua utziko zuen zendu eta berehala. Gizakia hil bazen ere, bere mamuak bizirik dirau gizaki modernoek absentziak pairatzen dituzten bitartean. «*Non topa daiteke oraindik itozteko itsasorik? Gizakiarengan.* Entzuten da gure garaian zehar» (Nietzsche, 2010: 78).

Modernitateak Gizakiaren —Jainkoaren, azken batean— mamuaren gorpuzte piloa ezagutu ditu. Jainkoaren eta Gizakiaren heriotzarekin agertzen dira, horrezkerok, gorpuzte ezberdinak, forma ezberdinak: *gizaki nagusi* nietzschetarrak —gizaki nagusia zera da, gizaki erreaktiboak nagusi gisa agertzeko duen irudia (Deleuze, 1971: 231)—. Beraiei dagokie zubi-lanak egitea, Gizakiaren heriotza zertifikatu eta gaingizakiaren etorrera ahalbidetu eta prestatzea.

Gizaki nagusien pontentzialtasuna izugarria izanik ere, hurbilago daude bufoi batengandik Zaratustra-rengandik baino, etorkizunari begiratzeko eta aurrera egiteko gaitasuna izanik ere, iraganera lotzen dituzten indar erreaktiboan mendeko direlako oraindik. Jainkoaren heriotzaren berri izanik ere, heriotzak dakarrenaz ohartu izanik ere, ume edo gaingizaki izatetik oso urrun daude oraindik.

Gizaki nagusiek ez dute sufritzen gizakiagatik, Gizakiaren espektroak izanik, Jainkoaren lekuan jarri nahi dutelako oraindik Gizakia —forma ezberdinpean bada ere—. Oraindik ez dute behar beste sufritzen; are gehiago, beraiengatik eta beraien minagatik baino ez dute sufritzen. Ezin dute absentziarik pairatu eta Jainkoaren lekuan edozer gauza jartzeko prest agertzen dira, astoa bada ere —asto bat bada ere, dibinitateren bat gurtzeko bestelako forma bat baino ez da, fede zaharrean erortzea berriz (Cragolini, 2003: 93)—.

Gaingizakia ager dadin, azkenik, zubia zeharkatu beharra dago; beste modu batean esanda, artzainak egin bezala, kosk egin behar zaio nihilismoari, barre egin eta aurrera egin bidaian. Zubia gaintzeko, berriz, Gizakia gaintu behar da salto batez eta, horretarako, zendu nahi duen gizakia agertu behar da. Gizaki

mota berria (gaingizakia) sortu dadin beharrezkoa da aurrekoak hiltzea. Bestela esanda, gaingizakiak botere-nahi aktiboa izan behar du eta betiereko itzuleraren ideia jabe.

5.1. Baliokidetasun-fantasia nagusia eta haren baliokideak

Gaingizakiaren ideia 1882ko neguan kokatu behar dugu, *Zaratustra* zein *Gaya Cienciaren* aurretik ez baita agertzen arrastorik. Bizitza maldan gora jartzen zaionean asmatzen du Nietzsche-k antidoto gisa, bizitzaren gordintasuna soportatzeko. Gaingizakia da bere fantasia handia. Eta, fantasia baliokidea den neurrian, ezin da ulertu hirutasunaren beste bi fantasia-baliokide nagusiak kontuan hartu gabe —eta hauek, era berean, beste baliokide zerrenda luze bat kontuan izan barik—.

Lehenik eta behin, gaingizakia Ariadna eta Dionisos-en semea da, *betiereko itzuleraren* maisua, zeinek hautatzen baitu zerk etorri behar duen bueltan, zeinek itzularazten duen soilik baieztatutakoa (Deleuze, 1971: 264). Gaingizakiak aurrez aurre topatu nahi du heriotzarekin, bai bere burua etengabe berriztatu ahal izateko, bai bizi izandakoa berriz bizi nahi duela baieztatzeke —unea errepikatu nahi duena da (Vattimo, 2003: 27), unea izan nahi duena, iraganarekin apurtu eta etorkizuna eraiki nahi duena (Vattimo, 2003b: 328)—.

Gaingizakiak ikuspegi suprahistorikoa du, *suprahistorikoa* da. Edozeinek ezagunei galdetuko balie azkeneko hamar urteak izan diren modu berean berriz bizitzea nahiko luketen, gehienek edo guztiek ezetz biribila eskainiko lukete, arrazoi bategatik edo besteagatik —gehienek hobekuntza baten itxaropena dutelakoan—. Gaingizakiak espiritu gaztea izan behar du beti, soilik horrela ezagutu baitezake askatasunaren bidea (Nietzsche, 2000: 48,121).

Gaingizakia heroi *tragikoa* da, indar errektiboak neutralizatzen dituen, ezkorra den guztia kanporatu eta bere buruari estiloa ematen dion heroia; artelana eta artista izan behar du aldi berean, aniztasunari harmonia emanaz bere buruari estiloa ematen diona (Desiato, 1998: 189). Esperimentu hutsa da, bere bizitza esperimendazio pertsonalari eskaintzen baitio, sorkuntza eta berrikuntzari.

Gaingizakia gizaki *dionisiarra* litzateke. Sloterdijk-en arabera, *dionisiako* eta *dionisiar* bereizi beharko lirateke; dionisiakoak plazera eta zoriontasuna xede duten barbaro hedonistak edo *homo esteticus* (Maffesoli) hutsak lirateke; dionisiarrak, berriz, aldaketa eta sorkuntzaren alde egiten dutenak dira; hauek, dionisiakoek ez bezala, badituzte basati hutsak izatea galarazten dieten muga apolinearrak.

Gaingizakiak *birnaturalizazioa* ere esan nahi du, naturarekin loturak estutzea. Hau ez da, ordea, itzulera rousseautarra, gorputzaren benetako berreskurapena eta munduarekin benetako konexioa baizik; ez dauka zerikusirik basakerira edo animaltasunera —in-amoraltasuna— itzultzearekin. Naturara itzultzeak balio guztien aldaketa esan nahi du, suntsitzailea eta sortzailea izatea —balio-sortzailea, sinbolo-sortzailea (Vattimo, 2003b: 487)—. Gaingizakiak bere buruari ematen dio estiloa, *zentzua*.

Gaingizakiarengan gertatzen da etikaren eta estetikaren topaketa —eta, ez ordezkapena—: «Estilo handiak oinarrizko nahi indartsua behar du, nahaspila eta

konfusioa gorrotatzea» (Nietzsche, 2010: 510). Zentzuek, Egiek, Jainkoek utzi diote garrantzitsuak izateari eta, ondorioz, itxurak baino ez du garrantzirik egun —itxura, adierazpena, irudia, soinua, gorputza, gustua, ukimena (Sloterdijk, 2009: 91)—.

Gaingizakia litzateke *Politika Handiaren* garaia eskura izango lukeena, berarekin aristokrazia-eredu berria ekarriko zukeena. *Aristokrazia* hau da ez Aristoteles-en garaitik hona teoria politikoak erabilitakoa gobernu-eredu bati erreferentzia egitekoa, aristokrazia politiko klasikoa desagertzen baita Jainkoaren eta haren mamuaren heriotzarekin batera; ez dauka zerikusirik odol-purutasun edo nobleziarekin; ezta demokrazia liberalaren markoan formulatutako teoria elitista ere, aristokrazia nietzschetarrak ez baitauka zerikusirik autoritarismo edo oligarkiekin; azkenik, aristokrazia honek gizaki *aparten* agerkundea aldarrikatzen du, osotasunarekiko distantzia morala hartu behar dutenak (Klossowski, 2004: 195,204).

Gaingizakia menderatua zein menderatzailea izan nahi ez duen hori da, *soberranoa*, Nietzsche-k ez baitzuen gizaki baten ordezkapena xede: «Menderatzea? A ze nazka! Nik ez dut nire eredia inposatu nahi. Nire zoriona aniztasuna da» (Nietzsche, 2010: 335). Gaingizakia ez da, beraz, iraultzaile utopikoa, ez baitu gizateriaren aldaketa utopiko eta osoan sinesten —betiereko itzulera dena itzultzen da, baita txikiena ere—, ez baitu menderakuntza-eredu berrietan sinesten —ez du esaten gizakiak nolakoa izan behar duen, kontrakoa baizik—.

Bibliografia

- Ávila, R. (1999): *Identidad y tragedia*, Crítica, Bartzelona.
- Batzuk (2002): *Nietzsche, 100 años después*, Pre-Textos, Valentzia.
- Berkowitz, P. (2000): *Nietzsche, la crítica de un inmoralista*. Cátedra, Madril.
- Butler, J. (2001): *Mecanismos del poder*, Cátedra, Madril.
- Colli, G. (2000): *Después de Nietzsche*, Anagrama, Bartzelona.
- Cragolini, M. (2003): *Nietzsche. Camino y demora*, Editorial Biblos. Buenos Aires.
- Deleuze, G. (1971): *Nietzsche y la filosofía*, Editorial Anagrama, Bartzelona.
- , (2000): *Nietzsche*, Arena libros, Madril.
- , (2005): *Lógica del sentido*, Paidós, Bartzelona.
- , (2008): *Mil mesetas. Capitalismo y esquizofrenia*, Pre-textos, Valentzia.
- Derrida, J. (1998a): *Espectros de Marx*, Trotta, Madril.
- , (1998b): *Políticas de la amistad*, Trotta, Madril.
- Desiato, M. (1998): *Nietzsche, crítico de la postmodernidad*, Monte Ávila
- Ferraris, M. (2000): *Nietzsche y el nihilismo*, Akal, Madril.
- Foucault, M. (2000): *Nietzsche, la genealogía, la historia*, Pre-textos, Valentzia.
- Heidegger, M. (2000): *Nietzsche, Vol. II*. Ediciones Destino.
- Jara, José (1998): *Nietzsche. Un pensador póstumo*, Anthropos.
- Klossowski, P. (2004): *Nietzsche y el círculo vicioso*, Arena libros.
- Laclau, E. (2006): *Misticismo, retórica y política*, Fondo de cultura económica de Argentina, Buenos Aires.
- , (2007): *La razón populista*, Fondo de cultura económica de Argentina, Buenos Aires.
- Mann, T. (2002): *Schopenhauer, Nietzsche, Freud*, Alianza Editorial.
- Montinari, M. (2003): *Lo que dijo Nietzsche*, Salamandra, Bartzelona.
- Nancy, J.L. (2006): *Ser singular plural*, Arena libros, Madril.

- Nietzsche, F. (1992): *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Klasikoak, Bilbo.
- , (1993): *Ecce Homo*, Alianza editorial, Madril.
- , (1993b): *Humano, demasiado humano*, Clásicos de siempre.
- , (1995): *Mas allá del bien y del mal*, Clásicos de siempre.
- , (1996): *El anticristo*, Alba, Madril.
- , (1997): *Así habló Zaratustra*, Alianza editorial, Madril.
- , (1998): *La gaya ciencia*, Albor libros.
- , (1999): *El ocaso de los ídolos*, Edimat libros, Madril.
- , (2000): *Consideraciones intempestivas, II*. Alianza editorial, Madril.
- , (2004): *La genealogía de la moral*, Alianza editorial, Madril.
- , (2008): *Fragmentos póstumos (vol III)*, Tecnos, Madril.
- , (2010): *Fragmentos póstumos (1875-1882)*, II. bol., Tecnos, Madril.
- , Parmeggiani, M. (2002): *Nietzsche. Crítica y proyecto desde el nihilismo*, Ágora, Malaga.
- Sanchez Meca, D. (1989): *En torno al superhombre*, Antrhopos.
- , (2004): *El nihilismo*, Editorial Síntesis.
- , (2005): *Nietzsche. La experiencia dionisiaca del mundo*, Técnos.
- Sloterdijk, P. (2005): *El desprecio de las masas*, Pre-textos, Valentzia.
- , (2009): *Ira y tiempo*, Siruela, Madril.
- Uranga, M. (2011): *Espektroak. Gutuna euskalduntasunari buruz*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Vattimo, G. (2002): *Nietzsche, Heidegger y la hermenéutica*, Paidós estudio.
- , (2003): *En torno a la posmodernidad*, Anthropos, Bartzelona.
- , (2003b): *El sujeto y la máscara*, Ediciones de bolsillo.
- Wittgenstein, L. (2008): *Investigaciones filosóficas*, Crítica, Bartzelona.
- Zizek, S. (2005): *Bienvenidos al desierto de lo real*, Akal ediciones, Madril.
- , (2010): *El acoso de las fantasías*, Siglo XXI, Madril.

